

“EUSKAL BASERRI”
BERME MARKAREN ARAUTEGIA

BERRIKUSTEEN KONTROLERAKO ORRIA

BER.	BERRIKUSITAKO ATALA	ORRIALDEA	BERRIKUSTE DATA

I. ATALA- OROKORTASUNAK.

1. Artikulua- “Euskal Baserri” garantia markaren babesa jaso dezakete, Arautegi honetan ezarritakoa betetzeten duten Euskal Autonomia Erkidegoan ekoiztutako baratzeko produktuek. Beraz, eta abenduaren 7ko 17/2001 legeak marken inguruan dioenaren arabera, ezingo da erabili “Euskal Baserri” marka beste produktu batzuetan, arautegi honetan ezarritakoa bete ezean. Ezingo da ere erabili ez izen, ezta espresio, marka edo bereizgarri, babestutakoekin antzekotasuna izan dezaketenak (fonetikoki edo grafikoki) eta nahasmena sor dezaketenak.

2. Artikulua- Fundacion Kalitatea Fundazioari dagokio “Euskal Baserri” markaren defentsa eta promozioa egitea, arautegi honen aplikazioa segurtatzea edota aldaketak egitea, berau betetzen dela ziurtatzea, eta produktuaren kalitatearen sustapen eta kontrola egitea, Fundazioa baita marka beraren titularra.

II. ATALA- PRODUKTUAREN DEFINIZIOA. EKOIZPEN GUNEA.

3. Artikulua- Euskal Baserri markaren babespean ekoizten diren baserriko produktuak Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizti behar dira, eta indarrean dagoen kalitate arauak fruitu eta barazki freskoen inguruan zehazten duenaren arabera, Estra eta Lehenengo kategoriakoak izan behar dute.

III. ATALA- EKOIZPENA ETA BILTEGIRATZEA.

4. Artikulua- Ekoizpenean, lantze teknika egokiak erabili behar dira produktuaren garapen eta fruitu emate egokia lortzeko. Ez da onartuko produktuaren kalitatea kalte dezakeen produkturik edo lantze sistemarik.

5. Artikulua- Tratamenduak, produktua lortzeko beharrezkoa denetan soilik egingo dira. Fundacion Kalitatea Fundazioak baimendutako tratamenduen zerrenda osa dezake behar izatekotan (tratamendu kimikoak eta biologikoak).

6. Artikulua- Produktua, garapen une egokian dagoenean batu behar da. Kontu handiz egin behar da lan hau produktua ez hondatzeko eta bere kalitate ezaugarriak ahalik eta gehien gordetzeko. Produktua kutxetan edo edukiontzi gogorretan eramango da biltegirara, airea sartzen dela ziurtatuz eta euren artean zapaltzea ere ekidinez.

7. Artikulua- Batze edo aukeratze prozesuan, produktu motaren arabera, garbiketari ekingo zaio, berauek biltegiratu edo merkaturatzen direnean itxura egokia izan dezaten.

8. Artikulua- Epe laburrean merkaturatuko ez diren fruitu edo barazkiek ondo babestu behar dira eta toki eta tenperatura egokian mantendu.

9. Artikulua- Biltegi eta hozkailuetan tarte bat gorde behar da kutxa eta hormaren artean, aireztatzea egokia izan behar da, eta fruituek elkar zapal ez dezaten kontu handiz jarri behar dira.

10. Artikulua- Biltegiak eta hozkailuak garbi mantendu behar dira, gutxienez urtean behin desinfektatuz. Kanpainetarako soilik erabiltzen diren kontserbazio biltegiak kanpaina hasi aurretik desinfektatu egin behar dira.

11. Artikulua- Produktuaren trazagarritasuna ziurtatzeko, ekoizle eta ekoizle entitate bakoitzak erregistro eguneratua izan behar du kide diren ekoizleen zerrendarekin (entitateak), euren lur sail, barietate, lantze sistema, ekoizpen aurreikuspen eta interesgarria izan daitekeen beste edozein daturekin batera.

Entitate edo ekoizle bakoitzak Fundacion Kalitatea Fundazioak ezartzen dituen erregistroak eta informazioa eguneratuta izan behar dute, berau eskatzen zaienean emanaz.

IV. ATALA,- SAILKAPENA, ONTZIRATZEA ETA IDENTIFIKAZIOA.

12. Artikulua- “Euskal Baserri” markarekin merkaturatuko diren produktuak, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden zentroetan sailkatu, ontziratatu eta identifikatu behar dira.

13. Artikulua- Maneiu eta ontziratze zentroetako kideak gehien bat ekoizleak edo izena emandako ekoizleen entitateak izan behar dira. Ontziratze zentro batean beste ustiategi bateko produktua sartzen denean, produktuaren trazagarritasuna ziurtatzeko, sarrera eta irteera liburuan jasoko da operazio hau.

14. Artikulua- Maneiu eta ontziratze zentroek produktuaren kalitateari kalterik egingo ez dioten hustuketa sistemak izan behar dituzte.

15. Artikulua- Maneiu eta ontziratze zentroek “Euskal Baserri” markarekin identifikatuko diren produktuak gainonetzekoengandik banatzeko lan lerroak bermatu behar dituzte.

16. Artikulua- Maneiu eta ontziratze zentroek behar bezalako aireztatzea, eta tenperatura eta hezetasun egokiak izan behar dituzte produktuaren kalitatea kaltetu ez dadin.

17. Artikulua- Ontzi bakoitzaren edukia homogeneoa izan behar da barietatea, kalibre, kolorea eta heldutasun mailari dagokienez.

18. Artikulua- Ontziak, indarrean dagoen legeak ezarritakoa betetzeaz gain, produktua ondo mantentzea bermatu behar du. Ontzi barruetan erabiltzen diren materialak eta paperak berriak izan behar dira, itzultzekoak diren ontzien kasuan izan ezean. Gainera, garbi egon behar dira, usain gabekoak eta produktua hondatuarazi egingo ez dutenak. Gainontzeko bilgarri eta ontziak ere garbi eta itxura onean egon behar dira produktua ondo identifikatzen utziz eta markak berak eskatzen dituen kalitate helburuak betez.

19. Artikulua- Produktua merkaturatu aurretik, Fundacion Kalitatea Fundazioaren esku geratzen da erabiliko diren etiketak, diseinuak eta ontziak onartzea, eta behar izatekotan, erabiliko den ontzi mota zehaztea, bere osotasunean edo zati baten zehazpena behintzat, eta izango dituen koloreak, erakusketariak edo kutzak zehaztea –banaketa eta saltzeko erabiltzen diren ontzi unitarioak- ere berari dagokio.

20. Artikulua- Etiketan, indarrean dagoen legeak ezartzen dituen beharrezko datuez gain “Euskal Baserri” marka ere derrigorrez agertu behar da zehazten den eran.

21. Artikulua- Fundacion Kalitatea Fundazioak “Euskal Baserri” bereizgarria daramaten etiketa eta ontziak kontrolatuko ditu euren erabilera zuzena dela ziurtatzeko, imitazioak ekiditeko eta beren idazkerak edo aurkezteko erak berme marka honen aurka edo beronen helburuen kontra ere ez doala ziurtatzeko.

22. Artikulua- Produktuaren trazagarritasuna bermatzeko ontziratze zentroek erregistro liburu bat izango dute bertan Fundacion Kalitatea Fundazioak sarrera eta irteeren inguruan eskatzen duen informazioa jasoz.

V. ATALA- KALITATE KONTROLA.

23. Artikulua,- 1.- Fundación Kalitatea Fundazioak beharrezkoa den kontrol sistema ezarriko du produktuaren prozesu osoan zehar: ekoizpenean, kontserbazio eta biltegiatzean, garraio, ontziratze, maneiu eta merkaturatzean. Kontrol sistema honen helburua da, “Euskal Baserri” bereizgarriarekin identifikatzen den produktuak Arautegi honetan ezartzen diren baldintzak zein aplikagarri izan daitekeen gainontzeko arautegia ere betetzen duela ziurtatzea.

2.- Produktuaren trazagarritasunaren kontrola eta kalitatearen kontrola egitea lehenbizi, izena emandako ekoizleei eta ontziratzaileei dagokie. Berauek, euren lan prozesuetan, Arautegi honetan zehaztutako arauak bete ahal izateko, egokiak eta beharrezkoak diren kontrol eta lan sistema ezarri beharko dute Fundazioaren onarpenarekin.

24. Artikulua- “Euskal Baserri” bereizgarriaren erregistroetan izena emandako guztiek, onartu egingo dituzte baimendutako ikuskatzaileek egingo dizkieten ikuskapenak, ikuskatzaileei lagundu egingo diete lan horretan, eskatzen dieten dokumentazioa erakutsiz, ekoizpen, maneiu eta merkaturatzearen inguruko dokumentazioa erakutsiz.

VI. ATALA,- ERREGISTROAK

25. Artikulua- Fundacion Kalitatea Fundazioak honako erregistroak izango ditu:

- a) “Euskal Baserri” bereizgarria lortzeko izena emanda duten ekoizleen erregistroak edo ekoizleen Entitateen erregistroak, bertan izena emandako ekoizleekin.
- b) “Euskal Baserri” bereizgarria duten produktuaren aukeraketa eta ontziratzea egiteko baimendutako ontziratzaileen erregistroak.

VII. ATALA,- NEURRI ZUZENTZAILEAK

Artículo 26- Kalitatea Fundazioak zigortu egin dezake Arautegi hau betetzen ez duena, jakinarazpen bat bidal diezaioke, edo marka hau erabiltzeko baimena behin behinekoz edo behin betiko ken diezaioke.

ERANSKINA

Ekoizleek eta ontziratzaileek aurkeztu behar dituzten datuak:

a) Ekoizleek aurkeztu behar dutena::

- Izena edo enpresa-izena eta helbidea.
- Lur sailen identifikazio datuak eta produktu bakoitza ekoizteko aurreikusten den azalera. Datu hauei gaineratu behar zaizkie, landaketaren dentsitateari dagokionez esanguratsuak diren datuak, lur sailaren egoeraren datuak, ekoizpenerako baliabideak (berogailua, landaketa sistema, negutegiaren estaldura, ureztatzearen automatismoa, egitura mota, etab...) eta ekoizleen esperientzia.
- Erregistratutako ustiategi bakoitzeko ekoizpen aurreikuspena.

b) Ontziratzaileek aurkeztu behar dutena:

- Izena edota enpresa-izena, helbidea eta ENA edo IFK zenbakia.
- Indarrean dagoen legeak ezartzen dituen erregistroetako izen ematea.
- Dagokion Lizentzia Fiskaleko Alta,
- Ontziratze lanak egiten diren instalazioaren identifikazio datuak, Fundacion Kalitatea Fundazioko teknikoek onartzeari begira.
- Produktuarekin hornitzen dien ekoizleen edo ekoizle entitateen zerrenda.